

LIZEAGAKO BIZILAGUNAK KEZKATUA DAUDE

“Paradorra puskaka erortzen ari da”

Tarteka umeak edo lotara datorrenik izaten da eta zerbait gertatuko ote den bel-durrez daude. Udalak proiektu baterako estudioa enkargatua du.



Holaxe dago Paradorra.

Paradorraren egoerak da-
goeneko sustoren bat edo
beste eman die Lizeaga-
ko bizilagun batzuei: noiznahi
teilatu puskak erori eta sekula-
ko soinua ateratzen dute. Gai-
nera behin, justu bezperan gaz-
te bat lotan egon zen pare-pa-
rean erori omen zen. “Eskola
garaian-eta, ume asko ibiltzen
da inguruan eta arrisku haun-
dia dago hor” esan digu batek.

HOSTALA, IKASTOLA, GAZTETXEA...

Historia luzeko etxea da.

1944ean inauguratu zuten *San Antonio Paradorra*. 1974 arte-
an mugimendu haundiko jate-
txea izan zen: gobernadorea,
Norteko Papelerako buruak,
Diputatu Nagusia, irakasle-
ak...Itxi zutenean, Martin Villa
Barne Ministroaren garaietan
Guardia Zibilaren kuartela jar-
tzekotan ere ibili ziren. Lortu
ez zutenean Martin *Villatarrek*
nahiko haserre bueltatuak izan
behar zuten. 1985ean, Rikar-
do Mendiola alkate zela erosi,
eta geroztik *Paradorra* udala-
rena da. Orduetik, 10 urtez

Langile Ikastolari utzi zi-
tzaion eta azpian gaztetxea
izan zen. Orain bi urte erreta
esnatu zen.

ESTUDIOA ENKARGATUA

Udalak jakinarazi digu gaia
esku artean dabilkiela. *Para-
dorrean* proiektu bat ateratzeko
estudioa enkargatua omen
dago, baina, baldintzak bete-
tzen dituen jakin arte ez dute
zein erabilpen izago duen au-
rreratu nahi. Nolanahi ere, “epe
motzean” argituko digute. □

Bi feriak Urbieta kalean

ATZIETA kalea asfaltatzen
ari zirenez, landare eta hegaz-
tien postuak Urbietan jarri
zituzten, feriaren azken mutu-
rean.

JENDERIK FALTA EZ

Oporrak izan edo lan egin
denek jan behar izaten dute-
nez, herritar mordoxka bildu
zen postuetan txanda eskatze-
ko edo erosteko intentziorik
gabe bazterrak miatzera.

“JENEROA” ETA XOXAK

Garai hontan landare aukera
urrituagatik, kantitatez bazen
denentzat adina.

Preziotan, berriz, gora-
beherak: koniflora zientoa
300 pzta merketu da eta eska-
rola zientoa 100 pzta garesti-
tu. Gainerantzeko landaretan
lehengoari eutsi zaio.

Hegazti postuan ahateak 10
duro garestitu dira, baina ez da
bestelako aldaketarik izan. □

Landarea	Pezetetan
Porrua	350, zientoa
Letxuga	500, zientoa
Azelga	700, zientoa
Eskarola	700, zientoa
Aza	800, zientoa
Koniflora	1.200, zientoa

Hegaztia	Pezetetan
Oilandak	650
Oilaskoak	225
Ahateak	400
Indioilarrak	650

FUTBOLA

Hernanik 6 eta 0 irabazi zuen Vasconiaren aurka

Eibar edo Mundaroren kontra jokatuko du ‘Sebas Ontoria’ torneoko finala;

DENBORALDI berrirako-
prestaketak ez dituzte gaizki
hasi. Martutenen jokatutako
Sebas Ontoria torneoko fina-
lean dira, atzo Vasconiari
dozena erdi bat gol sartuta
Torneoan 4 talde ari dira:
Vasconia (Erregional maila-
koa), Eibar (Bigarren B),
Astigarragako Mundarro
(Preferentekoa) eta Hernani
(Hirugarren mailakoa).

FINALA ZAILAGOA

Finalerdietako partidua errez
irabazi zuten, baina, garaipe-
na espero zitekeen Vasconia
bi maila beheragoko taldea
delako. Finala ez da hain
samurra izango beste aurka-
rien kategorian kontuan hartuta.

LARUNBATEAN FINALA
Martuteneko futbol zelaian
jokatuko da 18:30etan. □

KALEAK BERRITZEKO LANAK



Gaur Atzieta kalea itxita

Gaur, kaleak berritze lanak direla-eta, eguerdia arte Atzieta
kalea itxita egongo da Pana parketik epaitegirako tartean.

Astelehenean Atsegindegiko parkina

Ateri bada behintzat, bestela lanak gelditu egingo dira-eta,
astelehenean ezingo da Atsegindegin aparkatu. Goizeko zor-
tziatarako libratu behar da. Dauden kotxeak gruak
Txantxilara eramango ditu.

Hernaniko Kronika

Eskatu zure kioskoan.
Debalde da.



**TXEMA
TABERNA**

Izpizua 19
HERNANI
Tel. 943 55 10 12

**ELKERRO
FRUTAK**

**Bertako produktuak
Fruitu exotikoak**

Telefonoz eskatzeko:


☎ **943 33 32 75**

Antziola 1, HERNANI

FLORENTINO GOIKOETXEA ZENA

Frantzian, Britainia Handian eta Estatu Batuetan kondekoratu zuten mugalari hernaniarra

Bigarren Mundu Gerran, Alemanengandik ihesi zebiltzan 227 pilotu aliatu eta beste soldadu asko Bidasoa pasa eta Hegoaldera ekarri zituen Florentinok.



FLORENTINO GOIKOETXEA.

☐ Jaio: **Altueta base-rrian**, 1898-III-14an.

☐ 1941-1944: mugaz honutza **227 pilotu** aliatu pasa zituen.

☐ Kondekorazioak:

- Ohorezko Legioa
- Gerrako Gurutzea
- Britainiar Imperioko For Courage medaila
- Freedom amerikoar medaila
- Liberazioaren medaila
- Leopoldo II.aren Ordeneko Zaldunaren Gurutzea
- Erresistentziaren Medaila

☐ Hil: 1980an, Ziburun.

Florentino Goikoetxea senide baten ezkontza egunean.

FLORENTINOK iheslari taldeak Urruñako baserri batean hartu, eta Bidasoatik barrena Oiartzuneraino eramaten zituen mendi bidetan barrena. Erderaz tutik jakin ez, eta iheslariak mu-garako zenbat falta zen galdetzean, etsiko zuten beldurrez, Florentinok erantzun bakarra zuen: "Doscientos metros".

Beti zeuden 200 metrotara. Bere gorputz sendoak nekeari beldurrik ez zion.

'GESTAPO' ETA ESPANIAR POLIZIA ATZETIK Ziburun alemanak eta Bidasoatik hona espainiar polizia, beti arriskuaren muga. 1944ean muga gurutzatetik zetorrela larri ibili zen:

dokumentu garrantzitsuak zeramatzen iheslari sare bati emateko eta alemanek metrailatzaz eraso zuten, baina lurre-ra erori orduko dokumentuak harri azpian gorde, eta paperik aurkitu gabe detenituta eramane zuten Baionako ospitale-ra. Erresistentziako talde batek erreskatatu zuen bertatik eta izkutuan gorde. ☐

Atzo Kontxan Hernaniko Bandera

'ELORRABI 1978' traineruak arraunean egin beharko zuen gure herriko *trapua* ez inork kentzeko. Arratsaldeko 19:30etan jokatu zen estropada eta emaitzak jakin aurretik *Kronikako* erredakzioa itxi zenez bihar emango zaizue gertatutakoaren berri.

Bihar Irungo bandera jokatu da 18:30etan. Bidasoan ariko dira arraunean, eta kontrako olaturik ez dute izango behintzat. Ea korronteak *trapurantz* inguratzen dituen!



HITZ BITAN

✓ ERREMORTEA

Zeberio II.ak 35 eta 28 irabazi zion Aizpururi 'Bingo Londres' Torneoan. Erremonteko txapelketa ari da azkenetara iristen. Atzo, Galarreta pilotalekuan Zeberio II.ak Aizpuru mendean hartu eta datorren astean Eizagirrearen aurka jokatu du hurrengo partidua. Irabazlea final aurrean sartuko da.

✓ ESKU PELOTA

Iosu Oiagak irabazi eta galdu Araban. Ez da samurra biak egiten, baina, El Villarren hala egin zuen, ba! Partidua 22 tantura izatekoa zen; Oiagak eta Bazetak 22-20 menderatu zituzten Telleria eta Korta. Besagaineko arduradunak, ordea, 21-20 zihoaztela, 25era jokatzeko agindu zien, eta orduan, 25-24 galdu egin zuen Oiaga-Bazeta bikoteak. Hau dena "breazko frontoian, ia zutik egoterik ez zegoela..." Profesionaletan dabilenetik ez du 22ra partidurik galdu. Hurrengo zita Oionen, eta, agian, Esnalen aurka gainera.

✓ TXIRRINDULARITZA

Jubenilek bihar Ergobiako Sari Nagusia dute. Arratsaldeko lau eta erdietan atera eta 80 kilometroko ibilbidea du karrerak. Atera eta Hernanira joko dute, Karabeletik Lastaolara, han buelta eman eta Perurena aldera; eta, ostera, Hernanira (17:00) bide berean. Bukaera Ergobian 18:35etarako dago iragarria.

✓ DANTZA

Aritz Martin eta Lierni Martiarena 3. Amurrioko txapelketan. Hori herenegun goizean; gero, arratsaldean, Martin-Lierni, eta Mikel-Nerea Lasa anaiarrebak Sorluzen aritu ziren, baina, zorte gutxiagorik. Bestalde, atzo ilunabarrean lauak Azkoitian izatekoak ziren. Emaitzak, erredakzioa ixterako iritsi ez zaizkigunez, bihar emango ditugu.

✓ POLITIKA

Atzo 'Aztoratzea' Hernaniko kaleetan. Euskal Herriko egoera politikoa salatuzko zein kale ekintza egin pentsatu eta erabakitzeke 20:00etarako udaletxeke plazan asanblada egitekoak zen. Han zer erabaki hura egitekoak zuten. ☐

A G E N D A

◆ GOIZUETAKO FESTAK

⇒ 12:30. Pelota partiduak:

Larraia-Azpiroz
Ohiturazko desafioa:
Goizueta Aranoren aurka

⇒ 17:00. Txarangaren kale-buelta eta ondoren zezenak.

⇒ 24:00. Dantzaldia, "Joselu Anayak" taldearekin.

◆ ASTE NAGUSIA

⇒ 17:00. Pelota partidua, Trinitate enparantzan.

⇒ 20:00 Musika hamabostaldira: "Pierre Hantat", Kursaallean.

⇒ 22:45. Su artifizialak, Japoniako "Marutamaya" etxearen eskutik.

HERIOTZAK

Maria Ugalde Sarasola anderea

Atzo hil zen 94 urte zituela.

Hileta elizkizunak gaur **zazprietan** Juan Bautista Parrokian.

☎ TELEFONOAK

► Taxiak: 943 550093

► Udaltzaingoa: 943

333288

► DYA: 943464622

943 335533

► Anbulatorioa: 943 557750

✚ FARMAZIAK

► Egunez: Correa

Antziola auzoa, 44
☎ 943336022

► Gaez: Aizpuru
Latxunbe Berri, 11
☎ 943553582